



Kirolak ez du adinik

Haizea Arruti: Itsasondoko bidaiari konprometitua
Agenda 21: Batzarren balorazioa
Gaztelekua: Azkeneko ekintzak
Lehiaketaren sariduna eta lehiaketa berria!



Agurra

Nabarmena da Udalak urte hau indartsu hasi duela eta herriari ezinbesteko azpiegituretzaz ornitzen ari dela, zuen begiez ikusi eta "sufritzen" ari zarete Beitiko aldapa berria, irailean ireki genuen haurreskola, parke berria... Oraindik lanean gaude eta aipatzekoa da oraindik hurrengo urteari begira laster aipatuko dugun Udalaren berrikuntza handia.

Eguberriak badatozela aipatuz, beti bezala gazte eta heldu guztien zorionerako Olentzeroren etorrera ospatuko dugu.

Hemendik beste behin ere agur bero bat egun hauetan gure artean egon ezin izango diren preso eta iheslari guztiei. Animo pillo bat beraiei eta gabon zoriontsuak opa dizkiegu. ■



UEMAren gorabeherak

A benduaren 3an euskararen nazioarteko eguna ospatu zen, euskararentzako testuinguru itogarri batean eta menpeko hizkuntz politiken baitan. Euskarak laguntzak behar ditu, euskararen ingurune kaltegarria gainditzeko eta ez sendotzeko. Euskal Herri euskaldunak aldaketa politikoa eta testuinguru osasungarria behar ditu; baina jokaleku horretara joateko, euskararen aldeko ekintzak, ofizialtasun osoa eta eskubideak berreskuratu behar dira, Euskal Herri osoan. Herri honen eskubide iraunkorra eta kendu ezinezkoa baita; eta hori gabe Euskal Herri euskalduna ez baita berrosatuko.

Hori diogu, azken 30 urte ondoren, egoerarik onena den zatian, EAEn, aurreko Jaurlaritzaren 2005-2009ko egitasmoak honako joera negatibo hauek adierazi dituelako: "euskararen erabilera urria eta guztiz irregularra da", "euskaldunak bakarririk hartuz gero, euskararen erabilerak behera egin du", "1982 inguruko urteetan ez bezala, erdal elebakartasunaren aldeko diskurtsoa ari da orain gure artean zabalitzen", "ezin da euskararen geroa bermatutzat eman"; eta Kontseiluaren Hizkuntz Eskubideen Behatokiak: "hizkuntz eskubideak Euskal Herri osoan urratzen dira eta administrazio guztiek urratzen dituzte".

Urte horietan, besteren artean, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak egindako lana nabarmendu behar da. UEMAn dauden herriek dituzte notarik onenak euskararen normalizazioan. Egun EAE-ANVk, EAK, Aralarrek eta kide independente batek osatzen dute UEMako zuzendaritza. EAJk aurka jotzea erabaki du, garestia dela diote, eta UEMATik atera ditu zenbait udalerrri; horien artean, Munitibar, Etxebarri, Mendexa eta Getaria; Azpeitiko Udalak UEMAn sartzea erabaki zuenean ere, aurka-ko botoa eman zuten hautetsi jeltzaleek.

Baina albiste onak badira. UEMAn sartu diren herri berriak. Besteren artean, Atxondo, Mallabia, Areso, Azpeitia, Otxandio, Araitz, Larraun, Etxalar, Bera, Elgeta, Amezketa eta Busturia. Kide berriekin, dagoeneko 61 udalerrik osatzen dute UEMA. UEMAren 18 urteetan, hirukoiztu egin da hasieran euskaraz bizitzeko erabakia hartu zuten udalerrien kopurua eta gogoeta prozesuan sartuta daude etorkizunari aurre egiteko. UEMAK zer izan nahi zuen, zer izan den eta zer izan nahi duen erabakitzeko.

Espainiako Estatuak UEMako udal ordenantzak baliogabetu baitzituen, Espainiako

Konstituzioaren mugak gainditzen omen zituelako. Kanpoko esku sartze bidegabe horrek udal ordenantzak murriztu ditu; aho batez onartutako udal ordenatzen artikulak baliogabetu ditu (Alegia, Aizarnazabal, Orendain, ...); udalak UEMAn sartzea debekatu ditu (Ondarru eta Lekeitio); UEMA marko juridiko politikoaren eta menpeko politikaren esparrura mugatuz.

UEMAk jarraitu behar du, euskararen jarduna indartzen udal administrazioan eta udalerrien bizitza sozial guztian; baina horrekin batera, euskararen testuinguru itogarria aldatzeko eta ingurune osasungarria ezartzeko, jauzi kualitatibo eman behar du. Euskal Herri euskalduna berreskuratzeko hizkuntza politika berria aldarrikatu behar du. Lehen urrats bezala, UEMAKo herritar euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubide pertsonala Euskal Herri osoan aitortua izan dezagun eta erakundeek eskubide hori berma dezaten.

Euskararentzako proposamen demokratiakoak, gutxienez, aitortu behar du Euskal Herri osoan, ofizialtasun nahikoa, belaunaldi berri guztiak euskalduntzeko; euskara hutsezko erabilera ziurtatu behar du, euskaldunak %70etik gora diren herrietan eta esparru sozialetan; eta euskal hizkuntz komunitatea berrosatzeko eta normalkuntza progresiboa zabaltzeko ekintzak bermatu behar ditu.

Izan ere, gizateria ingeleseko elebakartasunera bideratzen ari da eta euskarak ez du oraindik, Belgikako edo Suitzako hizkuntzen pareko estatusik; baina Frantziak eta Espainiak euskarari estatu burujabearen tresnak debeketzen dizkiote. Horregatik, UEMAK, aurrera begira, egungo menpeko hizkuntza politiken zikloa itxi eta Euskal Herri euskalduna berrosatzeko ziklo berria ireki behar du, Euskal Herri osoarekin elkar lanean.

Garaia da hizkuntz zapalketaren eta menpeko politiken amarruen aurrean oinarri juridiko unibertsalak aldarrikatzeko, euskararentzat lortzeko Euskal Herri osoan, gaztelaniak eta frantsesak, bakoitzak bere estatuan duten "berdintasunezko estatusa eta parekotasunezko egoera" eremu juridikoan, politikoan eta soziolinguistikoa. Hizkuntz askatasunak Euskal Herri euskalduna exijitzen du. Ez da amore emateko ordua euskararen prozesua abiatzeko baidzik. Euskal Festaren garaia da. Guztion partaidetza eta harremanak hobetzeko, kohezio soziala indartzeko, euskaraz bizitzeko eta Euskal Herri euskalduna lortzeko. ■



Itsasondo ekinez egina

Hasi gara Itsasondoko Herri Plan berria garatzen. Helburua: datozen urtetan zehar, herri mailan landu behar ditugun ekimenen inguruko urteroko plangintza egin eta, era berean, Udalean funtzionamendu berria martxan jartzea da.

2005ean ere, herrian hainbat bilera egin genituen Agenda 21 egitasmoaren barruan. Bertan, herriak gai ezberdinen inguruan hartu beharreko bideak markatu ziren. Lau urte beranduago, eta orduko plana aztertu eta ebaluatuta, herriari egokitutako plan berri baten beharra agerian geratu da. 2005ean onartutako planak 71 ekintza jasotzen zituen bere baitan eta, gaur egun, horietatik 7 geratzen zaizkigu hasi gabe. Hau da, azken lau urteotan, Udala plan hartan zehaztutako ekintzak burutzen jardun da: Berdintasun Plana, Arau Subsidiarioen berritzea herritarren parte-hartzearekin, Gazte plana, Natur ondarearen inbentarioa, olio bilketa zerbitzua, etab. Besteak beste gai ezberdinen inguruko azterketak egin dira, orain dela lau urte hainbat gaien inguruko egoera zein zen jakitea beharrezkoa zela erabaki genuelako.

Orain azterketa hauek guztiak esku artean izanda, datozen urteetara begira landu beharreko ekintzak zehazteko tresnak dauzkagunez, guztion artean hausnarketa eta eztabaida martxan jartzeko garaia iritsi zaigu.

Guztion artean esaten dugunean, Udaleko ordezkari politiko, udal-tekni-kari eta herritarrez ari gara, hain zuzen ere denon parte-hartzearekin osatu diren 3 lan-taldeen bidez, plana eztabaidatzeaz gain, hemendik aurrera udalean funtzionamendu berria sortu nahi da.

Azaroaren 10etik hasita, lau bilera ezberdin izan ditugu prozesua herritar guztiei aurkeztu eta hiru lan-taldeak abiarazteko: INGURUMENA, HIRIGINTZA eta HERRI BIZITZA. Lan-talde bakoitzean hainbat gai landuko dira (guztioi bidali zaizuen txostenean ikus daitezke gai hauek guztiak). Lehen bilera hauetan, talde bakoitzari dagokion gaiaren inguruan azken urtetan egindakoaren inguruko azalpena eman da udalean aritzen diren teknikari ezberdinen eskutik.

Datorren urteko otsailetik aurrera, lan-talde hauek 2010. urterako plangintza lantzen joango dira pixkanaka-pixkanaka. Horretarako, urtean lan-talde bakoitzeko lau bilera egitea aurreikusten da. Biler horietan landu beharreko informazioa interesa duen ororen esku jarriko da aurrez, bilerak ahalik eta zehatz, labor eta eraginkorrenak izan daitezen.

Ba al zenekien...

Herritarrek erabaki politikoetan parte hartzea ez da aukera berria. Euskal herrian, Erdi Aroaren amaiera aldera udal "kontsejuak" sortu ziren. Bere jatorria, aintzinako "concillium" germaniarran dago. Hemen hitzaren bidez, libreki eta herritarren nahiak jasotzeko asmoz batzarrak egunerokotasuneko lan tresna ziren. Udal kontsejuaren indarra handitu ahala, herriko nagusien boterea ahuldu egin zen. Baina Aro Modernoan, udal-batzarrak edo auzokoen erregimentu bihurtuz, batzar hauetan parte hartzeko eskubidea murriztu egin zen, biztanle xume gehienak kanpoan geratuz.

Bilerak hiru hilero egiteko asmoa daukagu, pleno aurretik, bileretan lantzen direnak ondoren udal organoetan ere landu daitezten.

Herritar guztiei dei egiten diegun bileratan parte hartzeko, bakoitzak interesa duen gaiaren arabera, nahi duen lan-taldeetan bere ekarpenak egin ditzan, izan ere, guztiontzat atseginago, txukunago, juxtuago eta biziago izango den Itsasondo bat lortzeko ezinbestekoa dugu guztion inplikazio eta parte-hartzea!■



Itsasondon bada Parke berri bat!

Duela pare bat hilabete martxan jarri da gure herriko parke berria eta jada Ordizin ere errezeloak sortu dira, dirudienez ez da jubilatirik ikusten egun hauetan herriko kaleetan, denak beraien txandaren zai omen daude gure parke berrian.

Jendeari ideia izugarri gustatu zaio eta jada herriko beste toki batean beste baten eskaria egiten ari direla entzuten da hortik...

Jende guztiari zuzendutako parkea dugu hau bainan batez ere aiton-amonei, ariketak egiteko eskeintzen zaion aktibitatea da eta egunero ikusten dugun jendeari entzunez oso gomendagarria omen da.

Gaur kuadrila polita ikusi dugu eta beraiengana gerturatu gara beraien iritzia ezagutzeko.

–"Itsasondon jada hiru parke daude haurrentzat, haurreskola berria... bainan esan didate helduentzake parkeak ere badirela!"

–"Hori ba! orain herrian Ordiziko biden badugu jolas edota ariketa egiteko toki berri bat, psikomotrizitatea lantzeko leku apropos bat."

Jose, Pepi eta Maria, hirukotea elkarrekin etorri dira, nondik eta Ordizitik! ba esaten genuen bezala inguruan fama hartu duen parkea omen da.

–"Guk entzuna genuen parkea egin behar zutela, obretan ari ziren bitartean galdezka aritu ginen jakiteko zer egin behar zuten eta egia esan hasiera batean ez genuen uste hainbeste erabiliko genuenik, sorpresa ederra hartu dugu" dio Josek.

–"Nere senarrak zioen guk sekula ez genuela horrelako parkeetan jolastuko, baina orain, aldiz, egunero honera etortzeko eskatzen digu."

–"Nere lagunek parke honen berri eman zidaten eta orain paseo bat ematen dugun bitartean ariketa batzuk egitea ez zaigu batere gaizki etortzen." ■



Haurreskolaren bilakaera

Badira lau urte Itsasondoko Haur Eskola martxan jarri genuenetik. Hasiera ez zen batere xamurra izan, etxez etxe kanpaina egin, zenbait gurasorekin elkartu... Orain balantzea egiteko garai da.



Haur Eskola Partzuergoa 2003ko irailean hasi zen funtzionatzen. Bertan, Hezkuntza, Nekazaritza eta Arrantza saila eta Udalek hartu zuten parte. Hasiera batean Haur Eskolak Partzuergoaren helburua herri txikiak sustatzea eta bertako gazteria bertan gelditzea izan zen, horrela herri txikietan haur eskolak irekiz eta, zerbitzu hori herrian bertan izanez, ondoko herrietara joan gabe. Honek herri txiki askotan ondo funtzionatu zuenez, herri handiagoekin ere probatzea pentsatu zuten eta, horrela, gaur egun 187 haur eskola daude irekita 3 herrialdeetan eta beste zenbait irekitzeko proiektua ere badago.

Horrela, 2005-2006 ikasturtean, Itsasondoko Haur Eskola ireki ahal izan zen, duda handiekin, oraindik ez baikenien zenbateraino mereziko zuen, baina ireki zen. Hasieran haur gutxi elkartu ziren, etxez etxe ere ibili behar izan zen haur eskolaren berri emateko, aurrera egingo bazuen. Horrela, ordea, pixkanaka haurren kopurua handitzea lortu zen.

Aurten arte eskolak utzitako gela batean geunden, gehienez 10 umerekin, baina eskaria geroz eta handiagoa zela ikusirik, herriko beste lokal handiago batera pasatzea erabaki zuen Udalak. Gainera, orain dela hilabete gutxi, Itsasondo, Arama eta Alzagako Udalek hitzarmena sinatu zuten, Arama eta Alzagako haurrak Itsasondoko haur eskolara bideratzeko. Hori haur eskolaren etorkizuna segurtatzeko beste bide bat izango delakoan gaude.

Gaur Goiko Kanean gaude, Kalea etxean, etxe berriaren azpiko solairuan. 2 gelatan banatua dugu eskola, alde batetik 0-1 gela eta bestetik 1-2 gela.

Dagoeneko 0-1 gela bete da. Baina 1-2ko gela ez, beraz, urtarrean bertan 2 haur gehiago matriculatzeko aukera zabalduko da. Ez dute nahitaez urtebetekoak izan behar, txikiagoak ere onartuko dira, hau da 2009an jaiotakoak.

Gure Haur Eskolaren helburua, haurrari heziketa oso bat ematea da, bai fisikoa eta bai emozionala, eta horretan saiatzen ari gara momentuz hiru hezitzaile (Miren, Aitziber eta Amaia).



Beraz, inongo informaziorik nahi izanez gero, etorri lasai guregana, bertan izaten baikara goizeko 7:30etik arratsaldeko 17:00ak arte, edo nahiago baduzue, deitu telefono honetara 943 164831 eta hitz egingo dugu.■



Aparkalekuaren erabilera arautzen duen ordenantzaren aldaketa

Herri sarreran kokaturik dagoen aparkalekuaren erabilera onartzeko ordenantza 1995. urtean onartu zen. Azken hilabeteetan aparkalekuaren erabileran zuzendu beharreko zenbait jokabide sumatu dira eta indarrean zegoen ordenantza aldatzeko erabakia hartu da.

Ordenantza berriaren arabera, hemen-dik aurrera kamioientzako erreserbatutako zonaldean aparkatu ahal izateko, baimen berezia eskuratu beharko dute kamioi gidariak. Baimena lortzeko garaian, lehen-tasuna izango dute zenbait baldintza bete-tzen dituzten eskatzaileek, horien artean, herrian erroldatuta daudenek.

Bestalde ibilgailuentzako erreserbatu-tako aldean, karabanak aparkatzerik ez da izango eta, karabana guztiak, kamioien aparkalekuan ezarriko den koka-gunean aparkatu beharko dira.

Kamioien aparkalekurako sarrera itxita egongo da eta baimena dutenek bakarrik izango dute bertara sartzeko aukera.

Egin beharreko obrak amaitu eta bere-hala Udalak baimenak lortzeko deialdia egingo du.

Txakurren ordenantzaren onarpena

Azken urteetan txakurren presentzia Itsa-sondoko herri gunean asko areagotu da. Txakurrak dituzten jabeek indarrean dagoen araudia errespetatzeko eta joka-era ez egokiak kontrolatzeko, Itsasondon Txakurren Ordenantza onartzeko propo-samena egin ondoren, Udalak 2009ko urriaren 28an egindako batzarrean onar-tzea erabaki zen. Orain onartutako orde-nantza jendaurrean jarri da, interesatuek ezagutu eta egoki irizitako erreklamazio-ak jarri ahal izateko.

Ordenantza onartzearekin batera, Udalak, herriko zenbait lekutan, txaku-rrer kakak biltzeko plastikozko poltsak jarriko ditu epe laburrean.

Txakur-jabe guztiei, onartutako orde-nantzan jasotzen diren betebeharrak duten garrantziaz jabeturik, horiek bete-tzeko beharrezko arreta jartzeko dei bere-zia egiten zaie. Interesatu guztiek orde-nantza horren kopia jaso ahal izango dute Udaletxean eskatuta edo Udaleko web orrian www.itsasondo.net helbidean.

Jubilatuena lokal berria egokitzeko obrak

2009ko aurrekontuan Udalak aurreikusitako obren artean, JUBILATUEN ELKARTE berriaren egokitzapena aurkitzen da. Lokala, Kale Nagusia 16ko behe solairuan kokatuko da. Lokal berriak lehengoak baino azalera handiagoa izango du, 100 m², sukaldea, zerbitzuak, bulegoa eta gelaz osaturik egongo da. Obra honek 160.000 € eurotako aurrekontua du eta egun gutxi barru obrak hasita izango dira. Obra hau finantzatzeko, besteak beste, Eusko Jaurlearitzako Landa Gara-penerako Sailak 36.000 eurotako lagun-tza emateko erabakia hartu zuen eta Kutxak, berriz, beste 22.000 eurotako laguntza emango duela agindu du. Gainontzekoa Udalak 2009ko aurrekon-tuan kontzeptu horretarako ezarrita duen partidatik finantzatuko da.

Jubilatuak, aparkalekua, zergak, Kantillape, olioia eta txakurrak

Azken batzarretan hartu diren erabaki azpimarragarrienak ondorengo atale-tan dituzue. Baina herrian zabalduriko kexa eta haserreak argitzearren, atal honetan olio bilketarako sistema berriaren inguruko azalpen batzuk idatzi ditugu, nahiz eta gai horren inguruan hartu den erabakia; ez duen Udalak hartu, Sasieta Mankomunitateak baizik.



2010erako tasa eta zergen tarifaren aldaketa

Urtea amaitzearekin batera hurrengo urtean aplikatu ahal izango diren ordenantzen tarifak errebisatzeko garaia heldu da aurten ere. Gai hau Urriaren 28an Udalak egin zuen batzarrean tratatu zen. Egoera ekonomikoak baldintzatu du aurten ere hartutako erabakia, batetik prezioen gainera indizea negatiboa delako (-0,1) eta, bestetik, herritarrek jasan behar izaten duten karga fiskala gehiago ez areagotzeko.

Hori horrela izanik, aurtengo urtean ez da igoerarik aplikatuko Udalak kobratzen dituen zerga ezberdinetan, uraren tasan izan ezik. Kasu horretan aplikatuko den igoera, Udalarari Gipuzkoako Ur Kontsorzioak kobratzen dion tarifarekin parekatzeko izango da.

Kantillapeko parkea

Kantillapeko parkean ariketa fisikoa praktikatzeko "parke berezia" ezarri da. Bertan 7 modulu desberdin kokatu dira, adin guztietako pertsonen erabilerarako. Parkean ezarri diren moduluak artikulazioen mugikortasuna hobetzearekin batera, bertara hurbiltzen diren pertsonen arteko harremanak lantzea du helburu. Moduluak kokatzeko lekua egokia izan denaren frogagisa, bertan egunero ikusten ditugun pertsonen kopurua ikustea besterik ez dago. Itsasondoko herritarrez gain, inguruko herrietakoak ere ikusi ahal izan ditugu bertan ariketak egiten. Segi horrela eta oraindik probatzera joan ez zaretenok moduluak probatzera animatzen zaituztegu.

Parkearen kostua guztira 6.000 eurotakoa izan da. Kutzari diru-laguntza eskatu zaizkio, eta 2.000 € emango dituela agindu du. ■



Olio biltetarako edukiontzi berria

Egun hauetan etxeko olio biltzeko edukiontzi berriak jarri ditu Sasietako Mankomunitateak Goierriko herrietan. Itsasondon, herriko plazan jarri du gainontzeko ontziekin batera (arropa, pilak, beira...).

Edukiontzia **sukaldeko olioarentzat da bakarrik**, olio begetalarentzat hain zuzen ere (frijitzekoa, kontserbatakoa, etab.)

Sistema hau aukeratzeko 3 edukiontzi modelo desberdin frogatu ditu Sasietak hainbat herritan, tartean Itsasondon (orain bazter-tuta geratu den modeloa).


Sistema berrian sukaldean erabiltzen dugun olio ontzi batean gorde behar da. Beteta daukagunean, edukiontzira eraman eta bertara bota **ontzian bertan ondo itxita**. Erabiltzen den ontzia plastikozkoa izatea gomendatzen da, botatzerakoan puskatu ez dadin, baina ez da derrigorrezkoa plastikozkoa erabiltzea.

Ondoren, olio hori Altsasun dagoen enpresa batera eramaten da, ontziak hustu eta eta olio iragazteko. Birziklapenerako egokitu ondoren, olio garbia Berantevillan (Araba) dagoen beste planta batera eramaten da. Bionor izeneko enpresa horretan olio **bio-diesel** bihurtzen da, bioerregai berriztagarria eta garbia, gure ibilgailuetan erabil dezakeguna.

Beste aldetik gogoratu nahi dugu, orain arte udaletxean banatzen ziren ontziak ez direla gehiago banatuko.

Azkenean, badago aldea. Olio komunetik bota edo berrerabili, ezta? ■





5. Ibilbidea

Itsasondo-Usurbe-Beasain

Iraupena: 3 ordu eta 15'.

Ibilbidea:

- Itsasondo-Iraola 30'
- Iraola-loiaga 30'
- loia-Larrazkanda 10'
- Larrazkanda-Leizia bidegurutzea 30'
- Leizia-Agorta 15'
- Agorta-Usurbe 20'
- Usurbe-Erauskin auzoa 30'
- Erauskin-Sagastigutia 30'.

Deskribapena: Ibilbidea hasteko, Otamendi baseritik abiatuko gara eta asfaltatutako bidea jarraituko dugu Ermintzako bidegurutzeraino (Urkia), pixkanaka-pixkanaka altura hartuz. Urkiko bidea eskuinean utzi eta ormi-goizko bidetik, loiara helduko gara, atzean, Goierri auzoa eta Artetxe baserria utzita.

loiagako belardietara iritsitakoan, arrasto txuri-horiei heldu, Murumendiko norabidea hartuz, eta Larrazkandara iritsiko gara. Bide nagusia jarraitu behar da hurrengo seinalea bilatu arte (GR-34/ PR Gi-55). Pare horretan ezkerrera hartu, PR-GI 55 ibilbidearen arrastoak segituz eta beheraka

Agortara iritsiko gara. Hemendik Usurbera igotzeko bide nagusitik edo zuzenean igotzen den bidexkatik joan gaitzke. Tontorra ez da oso polita (antena) baino bai ordea daukan panoramika, ezta?


Paradaxoaren ostein, beheranzko bideari ekingo diogu, Beasain aldera. Erauskin auzora iritsi arte ez gera bide nagusitik aterako. Hemen Aldapagaina jartzen duen seinalea topatuko dugu, norabide horri heldu eta pistatik barrena, Letamendi baseritik igaroz, Beasaingo Sagastigutia parkeraino iritsiko gara. Parkean beherantz doan edozein bide-xidorrek, herri-gunera eramango gaitu. ■



Otamendi



Goierri Auzoa




Ermintza




Artetxe Baserria



Ioiagazpi



Larrazkanda



Usurbe



Leizia



Agorta



Usurbetik panoramika

Haizea Arruti

Palestinaren bihotz zatitua

Palestina zibilizazio askoren altzoa izan da, giza-okuapzioaren historian lur desiratua, lur zikiratua mediterranearen kostan duen kokapenagatik, Nilo eta Mesopotamia arteko kulturen elkargurutzean egonik. Alabaina, herri ezberdinen kultura topagune izateaz gain balio sinboliko handia ere badu munduko hiru erligio monoteista handiren seaska baita: lur Sakratua kristau, judutar eta musulmantzat.

Mendeen joan-etorrian gorritz tintatu da Palestinako lurra jausitako odolaz eta guda-aztarnak edonon aurki daitezke, gordinenak palestinaren bihotz eta oroimenean. Palestinan izan berri da Haizea herri zahar honen borroka bertatik bertara ezagutu, ikusi eta azalean sentitzera. Palestina hizpide hartuta arituko gara kontu kontari:



Palestina? Non dago Palestina?

Herrialde ahaztuen artean dago Palestina munduko beste herri andana bezalaxe. Mundu zabalean jakina da bai Cisjordanian, bai Gazan egunero giza eskubideen urraketak amaigabeak direla baina guztiok ikusle mutuak soilik izatera mugatzen gara.

Barruan daramazun zerbait da bidaiatzea ala...

Egia esan gazte gaztetatik erakarri izan nau mundua esploratzearen ideiak baina orain sekula baino gehiago. Bidaia bakoi-tzak hurrengo amestera narama. Ateko sarrailatik haratago begiratu behar dela uste dut eta bidaiatzea horretarako aukera paregabea dela deritzot, begiak mundu zabalera irekitzeko, ezberdina den horretara hurbiltzeko, bihotza giza-tasunez aberasteko.



Haizea Susyako emakume artzainarekin Palestinako jantzia tradizionala jantzia

Kontatu hitz gutxitan zure bidaiaren nondik norakoa.

Zazpi laguneko koadrila elkartu eta han joan ginen txapela buruan jantzita Palestina gertutik ezagutzera. Tel-Aviv-eko aireportuko kontrola igaro eta ahal bezain laster tren hartu eta Jerusalemera joan ginen zuzenean. Berau bilakatu zen gure bidaiako "kanpo-basea" eta bertatik autobusa hartu eta Cisjordanian barrena Palestinar herriaren izatea geure azalean ezagutzeari ekin genion.

Beraz, esan bezala, Jerusalemenean igaro genituen lehen egunak hiriaren kontraste-ek liruratuta. Gainera, judutarren aste santuarekin tupus egin zuen gure egonaldiak eta lehenengo egunetatik arnastu ahal izan genuen bertako guda-giroa. Handik Ramallah-ra joan ginen eta gero Betlehemera bertan okupazioaren aurka burutzen ari ziren manifestaldietara. Errepidea mozten zuen kable txarrantxadunaren aurrean tinko azaltzen ziren palestinarrak israeldar armadaren aurrean, haur zein zahar izan, fusilen aurrean begiradarik jectsi gabe. Betlehem eta inguruko errefuxatu kanpoetan izan ginen manifestazioan lagun egin genuen batek lagunduta. Bihotza hausten zaio bisitariari horma horiek gordetzen dutena ikustean: milaka palestinarrak errekutatuak bizibaldintza duinetatik urrun. Ondoren Nablusen bisitatu-ko genituen errefuxatu kanpoen erretratua berbera zen eta istorioak ere oso antzekoak. Gogoan dituzte belaunaldi zaharrenek 1948an lehenik eta 1967an ondoren, euren etxe eta lurak uztera behartuak izan ziren egun madarikatuak. Geroztik errefuxatuak dira palestinarrak euren lurretan, munduan beste edonon ez bezala.

Handik Hebronan izan ginen gero, okupazioaren aurrean erresistentzia gogorra egin duen herria da. Familia batek hartu gintuen euren etxean eta azalean bizi ahal izan genuen salbuespen goeran egotea zer den. Handik gertu,

desertuaren ateetan, Susya izeneko herrixka izango zen gure hurrengo helmuga. Artzai lanetan aritu ginen artaldeak lur idor haietan hazten ziren zuztar gutxiak jan zituzten, nola ez, hemen ere soldaduen begiradapean. Berdin azeitunak biltzerakoan.

Edonon zaudela ere ohartzen zara herri palestinarraren duintasun eta adorea ez duela mugarik.

Telebistan ikusten dena egia ala gezurra da?

Izan ohi dugu tarteka Palestinako gertae-raren baten edo besteren berri baina gehienetan izan ohi denez komunikabide-ek ez dute bizi duten errealitate bortitza gardentasunez isladatzen, berriak solteak baitira, distorsionatuak. Egunero igaro behar izaten dituzte checkpointak lanera joateko, haurrak eskolara eramateko edo hormaz bestalde bizi diren familiarrak bisitatzeko eta beraz, egunero jasan behar izaten dituzte umilazioak, ordu luzeetako ilarak, soldaduek paretaz bestaldera pasatzeko baimenik eman ez eta atzera etxera itzuli beharra eta 10km bidea ordu askotako bidea izaten da. Egunero daude atxilotuak, gartzeleratuak, jipoituak, hildakoak, etxe demolizioak, espropiazioak... zer-gaitik ez dira hauek albiste?

Zer sentitu zenuen bidaiaren zehar?

Palestinarrak senti dezaketena sentitu nuen, bat egin baitzuten gure bihotzek. Euren lurrarekiko maitasuna, anaitasuna, bidegabekerien aurrean amorrua, inpotentzia,...mila sentimen kontrajarri.

Zer utzi du Palestinak zugan?

Bidaiatzen jarraitzeko grina.

Hurrengo bidaiara nora?

Munduko edozein txokok du bere xarma, beraz, ikusiko da bizitzaren bidaiak nora naraman.■




Betlehemeko manifestaldian lur okupazioen aurka. Aurrean soldadu israelarrak.




Susyako lur idorra, ardien bazka.



Nabluseko alde zaharra Palestinako erresistentziaren eredu.



Ramallah-ko checkpointa gauaz



Nabluseko Askar errefuxatu kanpoan izandako erasoaren aztarnak.



Palestinako eskola baten aurkako eraso fosforozko bonbaz

Palestina eta Israelen arteko gatazka

1947 an NBEak Palestinaren Zatiketa Plana onartu eta lurraldea bi estatutan banatzea erabaki zenetik (judu gutxiengoari lurraldearen %60 eman zitzaion) gero eta bortitzagoa bilakatu da Palestina eta Israelen arteko gatazka. 1948an israeldar estatua sortu zen eta berehala bost estatu arabiarren eta Israelen arteko gerra hasi zen. Amaitzean, Zisjordania eta ekialdeko Jerusalem Jordaniaren agindupean geratu ziren eta Gaza Egiptoarenean. Ordurako Israelek legezkoa zena baino %26 lurralde gehiago okupatua zuen. Biztanleria arabiarren %70ek bere etxeak uztera behartuak izan ziren, errefuxiatu bihurtuz.

Sei Eguneko Gerran, 1967an, Israelek Gaza eta Sinai penintsula kendu zizkion Egiptori, Zisjordania eta ekialdeko Jerusalem Jordaniari eta Golan Gainak Siriari. 1991n bake elkarrizketak hasi ziren, 1993an Osloko Akordioetan amaitu zirenak. Bertan, Gazan eta Zisjordaniaren zati batean estatu bat eraikitzea erabaki zen baina Israelen okupazio militarpean daude. Erregimen honek bere hortzik zorrotzenak erakusten dizkio etsaitzat jo duenari: salbuespen egoeran ezarri du herri palestinarra eta hauen eguneroko bizimodua, apurka-apurkako lur eta baliabide naturalen jabetzea (ur erreserba naturalak eta kolonoentzat okupatutako lurrak, baita base militarrek ezartzeko ere) eta pixkanakako judaizazio prozesua Jerusalem ekialdean biztanleriaren arabiarra izan ez dadin eta honela ekonomia palestinarra israeldarren menpe gera dadin. ■



emakume berdintasun plana

Azaroak 25 Emakumeenganako Indakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Azaroaren 25a, urtero bezala aurten ere Itsasondon ospatu dugu egun hau. Berezia da, sentsibilizazioa eskatzen duen eguna. Egunero ez bada bi egunean behin kasuren baten berri izaten baitugu albistegietan.

Datuek dantza handia izaten dute kopuruei dagokionean behintzat, bakoitzak kontatzeko modu ezberdina baitu. Emakumeen aurkako indarkeria modu ezberdin ugarian ulertu izan da, eta ulertzen da, eta honek zifrak ematera-koan arazoak sortzen ditu. Batetik, bikotekideek hildako emakumeak agertzen dira, eta bestetik, nahiz eta bikotekideak ez izan gizon batek hildako emakumeak. Baina ezin dugu ahaztu, gizon batzuk ere sufritzen dute genero indarkeria, adibidez homosexualek.

Aurten 75 emakume hil dituzte, eta oraindik kopuruak gora egin dezake. Horrelako kasuak Itsasondon gerta ez daitezten, modu ludikoan, emakumeengan eragina egiteko asmoz, bi ekintza berezi antolatu dira; batetik, dantza afrikarren ikastaroa, emakumeek eta neskek beraien gorputzaren kontzientzia izan dezaten, eta bestetik monologo/bakarriketa bat, barre pixka bat egin ez gai honen inguruan kontzientzia hartzeko.

Indarkeria kasu gehiago EZ! ■



Itsasondoko Berdintasun Plana

Informazio gehiago:

<http://itsasondokoberdintasunsaila.blogspot.com/>



gazte plana

Gaztelekua eta kulturarteko eguna

Joan den irailean, Itsasondoko gaztelekuak atea ireki zituen, oporren ostean. Ostiralero, bertan gazteak elkartu dira, elkarrekin egoteko, ekintzak egiteko... Ekintza desberdinak egin dira: eskulanak, mahai jolasak, bideo emanaldiak... guztiak izan dira interesgarriak baina horietatik bat oso aberasgarria izan da gazteentzat.

Izan ere, azaroaren 6an, Goiekik antolatzen duen Goierrri Kolore ekimenaren barruan, Itsasondoko gazteek, herriko haurrentzako Munduko jolasak antolatu zituzten. Horretarako, hezitzailearen laguntzaz, mundu guztiko jolasak bildu zituzten, aukeraketa bat egin zen eta gazteek beraien artean antolatu zuten eguna.

Egunean bertan, gaztelekura jende ugari agertu zen; haurrak, gurasoak... eta gerturatu ziren guztiek Afrikako, Ozeaniako, Europako, Asiako eta Amerikako jolasak ezagutzeko parada izan zuten. Sekulako giroa bizi izan zen gaztelekuan, eta guraso zein haurrak oso gustura agertu ziren. Behin jolasak bukatu ostean, indarrak berritzeko merienda bat jarri zitzaion eta horrela bukatu zen, aurtengo eta lehenengo kulturarteko eguna.

Lerro hauen bidez, dena antolatu zuten gazteei esker onak eman nahi dizkiegu, egin zuten lan bikainagatik eta bide horretatik jarraitzeko gonbitea egiten diegu. Eskerrak, era berean, parte hartu zuten guztiei ere. Gaztelekuak atea irekita dauzka herritar guztiontzat eta horrelako ekimen gehiago egin ahal izateko, gure prestutasuna agertzen dugu. Entzuteko prest gaude. ■



gizartea

Teleasistentzia zerbitzua

Teleasistentzia zerbitzuak eguneko 24 orduetan, jaiegunetan barne, SOS Deiarekin automatikoki konektatzeko aukera ematen du.

Zerbitzua abian jartzen duen sistemak bi elementu ditu:

- Zure etxean jarriko dizuten ekipoa.
- Etxean zaudenean, beti gainean eraman behar duzun domina edo esku-muturrekoa.

Ekipoa etengabe dago SOS Deiarekin konektatuta. Larrialdietan, zuk zure ekipoaren botoia sakatu behar duzu, eta etxearen beste alde batean bazaude, dominaren botoia.

Segundo batzuk geroago SOS Deiaiko langileek erantzun egingo dizute eta zer gertatzen ari den galdetuko. Ez duzu telefonoa erabili beharrik, teleasistentziak zuzenean komunikatzeko balio baitu.

- Behar izanez gero, senideren bati deituko diote, edota etxeko giltzak dituen pertsonari, zuri laguntzera joan dadin.
- Behar izanez gero, mediku taldearekin harremanetan jarriko zaituzte. 65 urtetik gora dituen eta bakarrik bizi den pertsonak edota egunean ordu asko bakarrik egoten denak eska dezake bere udaletxeko gizarte zerbitzuetan. Han emango dizuegu zerbitzuaren berri.

Eskaera tramitatzeke behar diren agiriak ondoko hauek dira:

- Nortasun agiriaren fotokopia
- Errentaren aitoparen fotokopia edo irabazien edo jasotako pensioaren agiriak
- Medikuaren txostenak

Zerbitzuaren kostea erabiltzailea, Udala eta Foru Aldundiaren artean ordaintzen da.

Zalantzen bat baduzu, telefonoz dei dezakezu udaletxeko gizarte zerbitzuetara. ■

horrenbestez,
lehtasunezko trataera
garbia eman beharko zaie
euskararen arnaguneei
XXI. mende hasierako
hizkuntza politikan

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA



UEMA-ko udalen hizkuntz politika egokia dela nabarmendu du kontseiluak

Kontseiluak eta UEMAK 2006tik 2009ra UEMAKo udaletan egindako hizkuntza politikaren neurketen irakurketa eman dute ezagutzera. Guztira, ehundik gora neurketa egin ditu Kontseiluak, eta tartean UEMAKo 30 udal daude. Emaizta kuantitatiboetan, udal bakoitzak Otik 10erako emaitza du, eta nabarmentzekoa da sailkapeneko aurreneko 10 postuetan UEMAKo udal egotea. Emaizten harira, UEMAK eta Kontseiluak UEMAKo udalen hizkuntza politikaren gaineko irakurketa egin dute prentsaurrekoan.

Jon Bollar UEMAKo lehendakariaren aburuz, zenbakien atzean UEMAKo udalek hizkuntz politika bateratua gauzatzeko konpromisoa ikusten da, baita UEMAKo ereduak euskararen normalizazioari onura dakarkiola ere. Emaiztak onak izan arren, UEMAK autokritika egin eta harago iritsi nahi du, herriz herri zer hobetua dagoela nabarmendu baitu. Hobetzeko bidean, UEMAK euskalgintza aukeratu du bidelagun: batetik, udararen aurretik Kontseiluarekin hitzarmena sinatu zuen, neurketen bidez udalen hizkuntza politikaren segimendua egiteko, eta, bestetik, Behatokiarekin duela urte eta erdi sinatutako hitzarmena du, herritarrek hizkuntza kexak bideratzea bultzatzeko, baita udalen aurka-koak direnak ere.

Horrenbestez, UEMAKo irakurketaren arabera, emaitzek adierazten dute UEMAKo eredu baliagarria dela euskararen nor-

malizazioan. Eredutik muina udalerrira euskaldunetan "euskarak lehtasunezko trataera garbia" izatea da, eta gaur egun 61 udal daude eredu horren baitan lanean. Nolanahi ere, Jon Bollarrek dei egin die gainerako udalerrira euskalduneri UEMAKekin bat egiteko, ekainaren 13ko Berako UEMAKo Eguneko leloa bere egiteko: "Euskarak elkartzeko gaituelako".

Jon Bollarrek gogora ekarri du UEMAKo bide propioa duela eta urratsez urrats aurrera doala bide horretatik: "Bidea nora bide bakarrekoa da, euskararen normalizazioari doa, eta emaitza onak eman ditu, gaur ikusi dugunez. Eta, esan bezala, bide-lagunak asko izan arren, bidea zabala da, denok kabitze modukoa."

Bestetik, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak neurketen ibilbidea izan du hizpide: 2005ean udalen hizkuntz politika aztertze metodologikoki zorrotz diseinatutako ebaluazio tresna sortu zuen, eta, horretarako, aditu askoren ekarpenak jaso zituen: soziolinguistena, udaletako zein beste administrazio batzuetako teknikarientzat, besteak beste.

2005. urtean, Euskal Herriko 66 herritan egin zen ebaluazio hori, eta, ondoren, lan horri jarraipena eman zaio eta lehenengo ebaluazio hori jada 100 herritan aplikatu du Kontseiluak. Aurrera begira, abiatutako lan honi jarraipena emateko asmoa du. 2011n bigarren ebaluazioari ekingo dio. Izan ere, ziklo politiko bakoitzean hizkuntza

politikak aztertze asmoa du Kontseiluak, azterketaren bitartez, udalek aplikatzen dituzten hizkuntza politikan dauden hutsuneak detektatu ahal izateko. Hutsune horiek agerian geratzeko direnez, udaletako arduradunek hizkuntz politika egokiak gauzatzeko hutsune horiek gaintzea beharrezkoa izango da.

Xabier Mendigurenek, halaber, elkarlanean garrantzia azpimarratu du; Kontseiluaren izpiritua betiere elkarlanean aritzea baita: administrazio guztiekin zein bestelako eragile sozial, ekonomiko eta politikoenekin. Horrexegatik ere, dinamika honen baitan, Kontseiluak hizkuntza politika hobetzeko udalerrietako erakundeekin elkarlana lortzen saiatzen ari da. Hor kokatzen dira berriki aurkeztutako 25 udalekin sinaturiko hitzarmenak eta ekainean UEMAKekin sinatutako hitzarmen berezia.

UEMAko udaletan egindako neurketen dagokienaz, Xabier Mendigurenek adierazi du emaitza hauek argi uzten dutela UEMAKo herrietan aplikatzen den hizkuntz politika, oro har, egokia dela. Halaber, gaineratu du Kontseiluaren webgunean sarre-bera berezi bat dagoela (www.kontseilua.org), eta hor kontsultatu daitezkeela herri bakoitzaren emaitzak edo herrien arteko alderaketak egin. Web gune horretan, bestetik, udalerrien hizkuntza politikaren inguruan bestelako informazioa ere eskainiko du Kontseiluak. ■

Argazki lehiaketa




Eneko Camposek, argazki lehiaketaren irabazlea, Marokon egindako bidaiaren zenbait azalpen elarazi digu:

Uda honetan Moroko aldean izan ginen eta bertan ateratako argazki batzu bidaltzen dizkizuegu.

"Bidaia Chefchauenen hasi genuen eta bertan jendea, eta normalean emakumeak, errekarara joaten dira etxeko alfonbrak garbitzera. Gizonezkoak alfonbrak errekarara eramaten ditzuzte eta garbitu eta gero, eguzkitan jartzen dituzte lehortzen. Ekintza sozial bat da.

Bidaia jarraituz Rabat aldera joan ginen eta errekaraz beste aldera mendeetan aldatu ez den herrirako harresitu bat dago, Sale izenekoa.

Aurrera jarraituz Marrakech aldera joan ginen, bidean Ouzoud-eko urjauzietan geratu ginelarik. Benetan toki ikusgarria gertatu zen. Bertara Marokoko jende asko joaten da egun pasa. Gazte askok salto egiten dute urjauzietatik."



- Ouzoud-eko urjauziak. Maroko -



- Sale herria. Maroko -



- Chefchauen herria. Maroko -



- Ebro ibaiaren ibilbidea - Tudanka (Kantabria)



- Ebro ibaiaren ibilbidea - Miravet (Tarragona)

AHTaren kronika

Ondorengo lerroetan, azkeneko hilabeteetako mobilizazio, adierazpen eta akten altxamenduaren gora beherak azalduko ditugu. Baionan egin zen manifestazioak ere aipamen bat merezi du. Argazki bitxia izan zen benetan: AHTren ibilbideak kalteturiko herrietako alkateak izan baitziren manifestazio buruan, pankarta eramaten. Hegoaldean ere... berehalakoan!



Zuhaitzei sustraietatik eutsiz

Irailaren 28an hasi eta hamaika egunez, AHTren aurkako hainbat lagun haritzetan zintzilikatu ziren lanak geldiaraziz, Itsasondoko Berostegi auzoan Abiadura Handiko Trenaren lanak hasi zituztela eta. Desobedientzia-ekintzaren helburua bi-koitza izan zen: lanak gelditzea bata, eta horrelako azpiegiturak gure lurraldean eragiten duen kaltearen berri ematea bestea. Biak lortu zituzten ekintzaileek, lanak geratzeaz gain, gizarteari jakinarazi baitzieten mapetan trazatutako lerro horiek mundu errealean gauzatzekoan ingurumenari egiten zaion kaltea ere erreala dela. Berostegin, hain zuzen ere, beren proiektuek adierazitakoaren kontra, ehunka urte dituzten hamarnaka zuhaitz bota nahi izan zituzten, hori guztia, sistema kapitalista, xahutzaile, antisozial eta antiekologikoa bultzatu besterik egingo ez duen azpiegitura elitista eraikitzeke. Ekintzak Itsasondon iraun zuen bitartean, dozenaka sostengu jaso ziren Euskal Herriko txoko guztietatik eta goierriarrek emandako erantzuna ere ez zen nolana hinkoa izan. Hala ere, eta Euskal Herrian inoiz gauzatu nahi izan den azpiegitura erraldoienaren aurrean gaudela jakitun, informazioarekin batera, jendartea eskuartean dugun arazoaren jakitun egingo duten ekintzekin jarraitzea beste aukerarik ez dugu.

Iparraldeko ere AHTri ez

Badira aste batzuk, Baionan, Errobi, Hego Lapurdi eta Errobi-Aturri herri elkargoen deialdiari erantzunez, 12.000 pertsonatik gora bildu zirela Iparraldean eraiki nahi duten AHTren linea berria arbuiatzeko. Hego Lapurdiko herri elkargoko presidentek Mixel Hiriarten hitzetan, "ingurumenean suntsiketa eragiteaz gain, ekonomiko-ki ere sostengatzen ez den xedea da eta beraz, zergatik onartu lurraldearen suntsiketa, behar ez den xede bat egiteko?". Argi dago, mugaz bi aldeetako aurkariak, beraz, argumentu berak dituztela gure lurraldea puntatik puntara 400 km-tan urratuko duen lurreko hegazkinari ezetz esateko garaian. Argumentu berak eta borroka bera, horixe islatu nahiko dugu urtarilaren 23an, Hendaiaitik Irunera, **AHT Gelditu! Elkarlanak** Iparraldeko ingurumenaren aldeko CADE elkartearekin batera antolatutako duen manifestazioan parte hartuz.



Akten altxamendua bertan behera Itsasondon eta Legorretan

Pasa den azaroaren 11n eta 12an, Espainiako Sustapen Ministerioi teknikariak AHTren Legorretako zatiko lurren desjabetzearen azken administrazio-pausua egin asmoz etorri ziren gure herrira. Hemen ordea, bulego batzuetan herritarrooi galdetu ere egin gabe gure etorkizuna erabaki eta baldintzatu nahi dutenei erantzuteko prest agertu zen AHTren aurkari talde bat. Dozenaka lagun bildu ziren azaroaren 11n Itsasondoko Udaletxeko eskaileretan eta Ertzainak arrastaka atera behar izan bazituen ere, ezin izan zuten udaletxeko atean kateatu ziren bi lagunekin gauza bera egin. Itsasondoko plazan oihu artean hartu zituzten Madrildik etorritakoak eta desjabetzak egin ezin zituztela ikusita, bertan behera uztea erabaki zuten. Hala gertatu zen hurrengo egunean Legorretan ere, udaletxeko atea ireki ezin zutela ikusita bertatik alde egin behar izan baitzuten. Legorreta zatiko desjabetzak beraz, hilabete inguruz atzeratu behar izan ditu Sustapen Ministerioak. ■

Informazio gehiago:

www.ahtgelditu.org

www.blogak.com/goierrikoahetz

<http://sindominio.net/ahtez>





“Oiyik ekarri ez zuen semia” ikuskizuna



Bertsolari eta trikitilariekin poteoa



Escola haurrek prestatutako “esketak”



Behatokiko Paul Bilbaorekin tailerra

Euskararen astea

Lehenik eta behin, eskerrak eman eskolako irakasle eta ikasleei egindako lanarengatik, beraiek gabe zentzurik gabeko ekitaldiak suertatuko lirakeelako.

Urriaren 28, 29 eta 30ean antolatzen, Itsasondoko Euskararen Astea.

Helburua, gure hizkuntza eskubideak bermatzeko dauden erakunde eta baliabide ezberdinak ezagutzea zen.

Ostiral arratsaldean hasi zen antolatzailak prestatutako hitzalditxo batekin, horretarako, herrian euskararen alde lan egindako pertsona batzuk izan genituen; horien artean Iñaki apaiza, Jose Mari irakaslea eta Maddi eskolako ikasle ohia.

Bertan jakin ahal izan genituen, garai batean bizitako euskararen inguruko historia ezberdinak, eta euskararen kontra herrian egon ziren pertsonaien berri ere izan genuen.

Garatek ere azaldu zuten beraien errealitatea: zein zaila egiten den euskaraz hitz egitea, tartean euskaraz ez dakien norbaiek dagoenean...

Ondorio batzuk atera ziren hitzaldi hartatik, baina garrantzitsuenak euskararen normalizazioa lortu arte oraindik borrokan jarraitu behar dugula izan zen, eta horretarako ez gaudela bakarrik, babes-ten gaituzten erakunde asko ditugula (UEMA, KONTSEILUA, BEHATOKIA...) eta elkar lanean aritu behar dugula.

Hitzaldian bertan, herrian hizkuntza eskubideen urreketa salatuzeko Kutxa batzuk jarri direla ere gogorarazi zen. Kutxak mediku etxean, tabernan eta udal-etxean jarri dira, eta herritarrek aukera dute, euskararen aurkako edozein urraketaren aurrean beren salaketak bertara botatzeko.

Larunbat goizean, Behatokiko Paul Bilbaorekin tailer bat antolatu zen eta bertan haurrak euskararen egoera aztertu zuten, hizkuntza mantentzeko zer egin behar dugun pentsatuz.

Oso gustura aritu ziren taldeka lanean.

Gauzaldia, eskolako haurrek prestatutako “esketak” ikusi ahal izan genituen; bertan, euskararen egoera “ez normalizatua” ikusteko aukera eman ziguten.

Aparteko lana egin zuten Itsasondoko aktore-aktoreak.

Ondoren, Txirene antzerki taldearekin “Oiyik ekarri ez zuen semia” ikuskizuna ikusteko aukera izan genuen.

Asteburu horren helburua, euskararen errealitatea zein zen azaltzeaz gain, Itsasondoko euskaraz izan duen bilakera eta historia ezagutzeko aukera eskaintzea zen, eta baita, UEMA, KONTSEILUA eta BEHATOKIA bezalako erakundeak euskararen normalizazioaren alde egiten duten lana gogoraraztea ere.

Horrez gain, gure Udala erakunde horiekin elkar lanean ari dela azpimarratu nahi dugu. Baina Udalez gain, herritar guztiok dugu euskararen normalizazioan geure urrats propioa egiteko aukera. Horretarako Udalak Hizkuntza Eskubideen urraketan aurrean jarrera aktibo bat hartzea deitu nahi diu herritarrek, eta herrian horretarako jarri diren Kutxak erabiltzera.

Mila esker parte hartu guztiei, bereziki ordutegiz kanpo herria dinamizatu nahi duten “betiko” horiei. ■

Iraileko Jaiak



Oporrak amaitzean, eta irailean ondo sarturik gaudenean, Itsasondoko jaien txanda izaten da. Aurten eguraldiak gehiegi lagundu ez badigu ere, gazte eta ez hain gazteek egunerokotasuna alde batera utzi eta ondo pasatzeko aukera izan dute. Denentzako ekintza eta denbora-pasak izan dira; argazki hauek esandakoaren ispilu. Burura oroitza-pen politik ekartzea espero dugu.

Korsikar lagunei ongi etorria eta kantu afaria Kuxkuxtu taldearekin

Kuxkuxtu taldea herria girotzen



Xabi alkatea Korsikarrei euskal-makila eskaintzen



Azaroaren 27an, arratsalde gau berezia bizi izan genuen Itsasondon. Arratsaldeko 7:30ean Korsikatik etorri berriak Itsasondoko plazan genituen "Mimoria Tramandata" Korsikar taldeko kideak. "Mimoria Tramandata" Korsikar musika tradizionala lantzen duen taldea da eta Korsikar herriaren enbaxadore gisa dihardu bertako kultura eta ohiturak zabalduz.

Itsasondoko herriak ongi etorria luzatu nahi izan zien Korsikarrei, batetik gure herrira etorri izanagatik eta bestetik Korsikar herria, Euskal Herriaren gixara, bere herri izaera lortze aldera borrokan diharduen herria delako; eta herri zapaldu gixara elkartasun loturak batzen gaituelako. Ekitaldiari bertsoen bidez eman zitzaion hasiera, ondoren, dantzariak aureskua dantzatu zuten eta Alkateak oroigarri moduan euskal makila eskaini zien. Korsikarrek beraien kantu tradizionalak eskaini zizkiguten, bai plazan bertan, bai eta ondoren herrian zehar egin zen triki poteoan ere.

Ondoren, 70 lagun inguruk, Arbel-aitz elkartearen egitza kantu afarian parte hartu genuen. Afal ondoren Kuxkuxtu Iparraldeko taldearekin kanta eta musika saio politaz gozatu ahal izan genuen; han argi geratu zen zeintzuk ziren kantaren profesionalak eta zeintzuk zale-tu soilak. Zer esanik ez, horrelakoetan gertatzen den moduan, norberak nahi adina luzatu zen gaua...

Jai ondorengo bazkaria



Urriaren 24an, Itsasondoko jaietan parte hartutako lagun taldeek bazkaria izan zuten Arbel-aitz elkartearen. Bazkari goxoa dastatzeaz batera, jaien gaieneko balorazioa egin eta hurrengo urterako egin daitezkeen berrikuntzen inguruan jarduteko une egokia izan zen.

Mendi bizikleta trabesia

U rriaren 11n zen hitzordua, arratsaldeko 3etarako 38 lagun herriko plazan genituen beraien bizikletekin ibilbideari hasiera emateko prest.

Ibilbidea Legorreta zaharretik Santa Maña gainera, bertan indarrak hartzeko gune bat zegoen prest eta hortik Aldaolara jaitsi eta Zubin zeharkatu ondoren, Berostegiko bide gurutzera. Handik gertu zuten helmuga.

Guztira txirrundulariek 22 km egin zituzten eta eguraldi ona lagun arratsalde ederra pasatzeko aukera izan zuten; hori bai izerdi apur bat botatzearen truke.



Urkiko Jaiak



I railaren 12,13 eta 14an izan genituen Urkiko jaiak. Larunbatean, lagunarteko afaria izan zen Laja eta Mikel trikitilariak alaiturik.

Igandean, berriz, goizari hasiera ona emateko hamaiketako izan zen Olarte anaiak lagunduta, eta eguerdian, bazkaria izan zen Urkiko elkartearen. Arratsaldean, aizkolariek izan zuten tartea; Olasagasti eta Azurmendi, Arrospide eta Ugartebururen aurka; saio bizi eta lehiatua izan zen, baina azkenean, Olasagasti eta Azurmendi izan ziren lehenak lanak amaitzen. Ondoren, gauera arte luzatu zen festa Olarte anaiekin.

Gurutze deunaren egunari meza nagusiarekin eman zitzaion hasiera, hamaiketakoarekin batera Jose Ignacio Zubeldia trikitilariaren musika izan genuen lagun, ondoren bazkaria izan zen eta Zubeldia anaien emanaldiarekin amaitu ziren jaiak. Giro paregabea izateaz gain, aurtengoan eguraldiak lagundu duela esan behar dugu.



Liburuaren txokoa

Abenduaren hasieran Durangoko azoka izan dugunez, eta Euskal liburu eta diskoen hitzordu nagusia denez, bertan nobedade izan diren eta harrera oso ona izan duten adin guztientzako ondorengo liburuak proposatzen dizkizuegu. On egin.

LONDRES KARTOIZKOA DA

Unai Elorriaga



Arratsaldero igotzen da Phineas, bere lagunekin, hamazazpi-garren teilatura, handik bakarrik ikusten baitira herriko bi sarrerak batera: erre-
pidea eta tren-geltokia. Itxaroten daude, izan ere, uda honetan iritsi beharko lukeen norbaiten zain.

Erabat amaitu ez den diktaduraren ondorengo garai lanbrotzuan, krudelkeriaren oroitzapena jaso eta gorde nahi dute pertsonaiek, beren zauriak behingoz ixteko, tiraniaren zerbitzariak zirrikitu guztiak itxirik dituzten arren.

MUSIKA AIREAN

Karmele Jaio



Leiho ondoan ematen du eguna Elenak, kalera begira, munduan egin beharrekoak eginda dituelakoan. Seme-alabek Ekuadorreko neska bat ekarri diote, etxeko lanetan laguntzeko eta etxetik ateratzera animatzeko. Elenak, baina, bertan geratu nahi du, bere oroitzapenei atxikia.

Maitasuna eta gorrotoa, adiskidetasuna eta zeloak, bizinahia eta etsipena... Sentimenduen nobela da Karmele Jaioren bigarren eleberri hau.

NORA EZ DAKIZUN HORI

Irati Jimenez



Maitasun ezinezkoak eta kasualitate gertagaitzak topatuko dituzu eleberri honetan, likantropoak eta bampirak, arima erosten duten aingeruak, ama hil ostean jaiotako haurrak, magoak, bidaiak, ipuinak... Pasioz eta liluraz beteriko liburua, amodio debekatuek bezala utzi ezinezko sorginkeriaz lotuko zaituena.

EZEKIEL

Jasone Osoro



Gazteentzako nobela dugu honako hau. Ezekielek hamalau urte ditu. Etxean amarekin eta arrebarekin bizi da, emakumez inguratuta. Aitak etxetik alde egin zuen, eta ez du hartaz oroitzapen askorik. Hamalau urteko mutil gehienek bezala, bizitza bi partetan banatuta dauka; batetik etxeko istiluak daude, eta bestetik kanpoko giroa: eskola, lagunak, koadrilaren lokala eta... neskak.

NIRE AMAK EZ DAUKA

ERREMEDIORIK



Iratik hamabi urte ditu eta oso argi ditu bere nahiak eta helburuak. Amak, ordea, oso bestelako ideiak ditu gauza askotan; espezial samarra da, xelebrea ez esateagatik. Bateko artista izan nahi du, beste-ko naturista, eta beste batean bidaiatzeko grina sartzen zaio. Estutasun bat baino gehiago pasa behar izaten dute aitak eta alabak, amaren burutazioekin. Iratik bere etxeko hamaika pasadizo barregarri jaso ditu orrialde hauetan.

ANE PIRATA

Pirritxek, Porrotx eta Marimotots



Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek bere lagun handi bati bisita egin zioten behin ospitalean. Ane izena du lagunak eta pirata izan nahi du. Gaixo dago Ane, baina pozik dago hala ere, pirata izatea erabaki baitu, eta bere desioa konplitu egin baitzaio. Eta nola egiten da bat pirata? Horretarako, maisu on bat behar da, noski. Eta Ane Piratak munduko piratarik ausartena du maisu eta eredu, Patakon. Alaia da Patakon, festazalea, eta inork baino hobeto daki piraten lezio ederrak ematen.



Kultur Agenda

Urtarrila

- Urtarrilak 17: Ziklo-krosa

Otsaila

- Otsailak 4: Santa Ageda bezpera
- Otsailak 13: Ijito eguna
- Otsailak 19: Eskolako Iñauteri festa

Martxoa

- Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna

Olentzeroren opariak

Udaleko haur eta gazteria sailetik, abendu hasieran, informazio orri batzuk banatu dira Itsasondoko etxeetara. Gabonak gainean ditugu, eta honezkero, haur ugari olentzerori eskutitzak idazten ari dira. Olentzero berriz, erabat lanpetuta ibiliko da. Guk, lana erreztearren, txosten horixe prestatu dugu.

Jostailuak, haurrari bere garapenean laguntzen dien tresnak dira eta beraz, haur bakoitzaren adina eta ezaugarriak kontutan hartu behar dira, opariak erosterako garaian. Txosten horren bidez, "Olentzeroei" lana arintzen saiatu gara, baina aldi berean, informazioa ematea ere izan dugu helburu. Hain zuzen ere, adin tarte bakoitzean, egokienak diren jostailuen adibide batzuk zerrendatu dira, eta azkenik, erosketak egiterako garaian kontutan hartu behar diren gomendioak azaldu dira.

Aipatzeko modukoak dira jostailuak aukeratzeko garaian kontutan hartu behar diren irizpideak. Alde batetik, **adina eta ahalmena** ditugu. Jostailua, haurren beharretara egokitu behar da. Gainera, jostailuak, **irudimena eta ekintza** garatzeko aukera eman behar du. Egokiena, hainbat **jostailuen arteko konbinaketa** ematea litzateke eta **bakarka eta taldean jolasteko** aukera ematea, biak uztartzuz. Azkenik, **sexu bereizketarik eta indarkeriaren** aldeko jarrerak erakusten ez duten jolasak dira egokienak.

la lagungarriak suertatzen zaizkizuen. Norbaitek ez badu jaso, jakin ezazue, udaletxean ale gehiago badaudela eta bertan emango zaizkizula zehaztasun guztiak.




Lehiaketa mundiala

Akatsarik ikusten al duzu argazkian? Anima zaitzete eta parte hartu zozketa berezi batean!

Gure helbidea:

Itsasondo2.0@itsasondo.net



**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA MARTXOAN
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.**

itsasondo^{2.0}

Herriko aldizkaria ((7. zk))) abendua-martxoa 2010

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Amaia Apaolaza • Jone Etxeberria • Belen Mendizabal • Alaitz Aierbe • Ainara Urteaga • Rosi Noguera Iker Mendizabal • Haizea Arruti • Eskolako Umeak • Zuberoa Jauregi • Miren Segurola • Gorka Martinez Danel Etxeberria • M^a Jose Arrizabalaga • Maite Lasa